

## MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleekin osatutako epaimahai batek erabakiko du aurtengo Vértigo Saria Huhezineman, euskal film laburren jaialdian

2017/03/09

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia epaimahaikide bila dabil parte hartzeko Sail Ofizialeko Vértigo Sariaren irabazlearen aukeraketan. Epaimahaikide moduan parte hartu ahal izango du MONDRAGON UNIBERTSITATEAn matrikulatuta dagoen edozein ikaslek. Epaimahaian egoteko interesa dutenek izena eman beharko dute antolatzaileak Interneten jarri duten formularioan.

**Vértigo Saria** da Huhezinemako Sail Ofizialaren sarietako bat, hain zuzen ere, finantziazio publikorik gabe egindako film labur onena aukeratzen duena. Aurten, 500 euro jasoko ditu Vértigo Sariko irabazleak.

Irabazlearen aukeraketan parte hartzeko, hurrengo izen-emate orria bete beharko dute interesatuek: **Vértigo Sariko epaimahaikide izan nahi dut.**

Lehiaketara aurkeztutako zazpi lanen artean onenaren aukeraketa bilera egingo da, **martxoaren 16an, 15:00etan Aretxabaletako campuseko A.0.15 aretoan.**

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia egingo da martxoaren 29, 30 eta 31n, eta aurtengoa izango da 10. edizioa.

